

IDEIAREN DESKRIBAPENA

Gure ideia jatetxetan erabili ez den janaria berrerabiltzea da. Horretarako jatetxe berezi bat sortuko dugu, eta honen izena **“Second Life Food”** da. Enpresa honen helburua da jatetxe handiek janaria ez xahutzea egunaren amaieran zaborretara botata. Gu arduratuko gara janaria salduko diguten jatetxe horietara joateaz, eta hurrengo egunetan erabiliko ez duten janaria jasoko dugu. Horren ondorioz janari asko aurrestuko dugu eta gainera merkeago lortuko dugu.



Guk aukeratu egin dugu ideia hau zeren eta janari asko ez da erabiltzen eta zakarrontzira botatzen da. Gure jatetxea adin guztientzat izango da, menu berezi bat izango dugu txikientzat. Gure jatetxea Bilbon izango da, bertan jateko mahaiak izango ditugu eta baita etxera eramateko zerbitzua. Jatetxeak irabaziak ematen baditu, leku batzuetara zabaltzea da gure helburua.